<p><b>HAMARGARRENA.- DOKUMENTAZIOA:</b></p> <p>Era berean, errentariak ALOKABIDE, S.A.ri dokumentu eta datu guztiak aurkeztu beharko dizkio, kontratu honetan ezarritako betebeharrak betetzeko.</p>	<p><b>DECIMA.- DOCUMENTACIÓN:</b></p> <p>Del mismo modo, el arrendatario deberá aportar a ALOKABIDE; S.A. cuanta documentación y datos sean necesarios para el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente contrato.</p>
<p><b>HAMAIKAGARRENA.-</b> Entregatutako elementuen mantentzea eta konponketa errentariaren kargura joango dira. Elementuak zaharkituta daudelako aldatzen badira, aldaketa hori errentatzaileak ordainduko du, elementuak duen kaltea errentariaren erabilera okerraren ondorio denean salbu.</p>	<p><b>UNDECIMA.-</b> El mantenimiento y reparación de los elementos entregados corre a cargo del Arrendatario. La sustitución de los elementos entregados debido a la antigüedad de los mismos será sufragada por el arrendador, salvo que el deterioro se debe al mal uso del Arrendatario.</p>
<p><b>HAMABIGARRENA.-</b> Kontratu honen xede den etxebizitzaren (garajea eta trastelekua barne) lagapen edo azpierreantamendu erabatekoa edo partziala debekatuta dago Babes Ofizialeko Etxebizitzaren legerian.</p> <p>Ondorioz, esleipenduna den bizikidetzaren unitatekoa ez den eta Etxebiden unitate horretako kide gisa izena emanda ez duen beste inork ezin du etxebizitza okupatu edo bertan bizi.</p>	<p><b>DUODECIMA.-</b> La cesión o subarriendo total o parcial de la vivienda (incluidos garaje y trastero) objeto de este contrato está prohibido por la legislación de V.P.O.</p> <p>Consecuentemente, no podrá ocupar ni residir en la vivienda ninguna otra persona ajena a la unidad convivencial adjudicataria de la misma, y que no conste inscrita en Etxebide como integrante de la misma.</p>
<p><b>HAMAHIRUGARRENA.- DEBEKUAK ERRENTARIARI:</b></p> <p>Maizterrak esanbidez deklaratzeko du udal ordenantzetan xedatuta dagoena bete eta errespetatuko duela, eta fatxadetan edo atarian edozein motatako errotuluak edo iragarkiak ipintzea debekatuta dago. Era berean, errentariak etxebizitzan, trastelekuan nahiz garajeetan ezin du:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Industria-, merkataritza- edo zerbitzu-jarduerarik instalatu eta/edo garatu.</li><li>- Material ezlandagarri, errekor, deseroso, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsurik eduki edo manipulatu.</li><li>- Objekturik bota patiora.</li></ul>	<p><b>DECIMOTERCERA.- .PROHIBICIONES AL ARRENTATARIO:</b></p> <p>El inquilino declara expresamente que cumplirá y respetará lo dispuesto en la Ordenanzas Municipales, quedando prohibida la colocación de rótulos o anuncios de la clase que fueran, en fachada o portal. Del mismo modo, tanto en la vivienda como en el trastero, como en el garaje, el arrendatario no podrá:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Instalar y/o desarrollar, actividad industrial, comercial o de servicios.</li><li>- Tener o manipular materiales explosivos, inflamables, incómodos, insalubres, nocivos o peligrosos.</li><li>- Arrojar objetos a patios.</li></ul>



<ul style="list-style-type: none"><li>- Erkidegoko elkarbizitza eta etxebizitzaren kontserbazioa kaltetu dezakeen animaliarik eduki.</li><li>- Antena parabolikorik edo telebista eta irratia hartzeko beste edozein hargailu indibidualik ipini balkoi, fatxada eta teilatuetan, errentatzaileak idatziz baimentzen dionean salbu. Alokabide, S.A.k bere gain gordetzen du, komenigarritzat jotzen badu, seinale kolektiboen hargailuak instalatzeko aukera, hala dagokionean bidezko deritzon baldintzak ezarriz.</li><li>- Arroparik edo bestelako eseki leihoetan eta terrazetan, kanpokoak nahiz barnekoak izan, ezta eraikineko beste edozein lekutan ere, horretarako bereziki destinatutako lekuetan salbu.</li><li>- Aire girotua instalatu errentatzaileak idatzizko baimena eman gabe.</li><li>- Ibilgailu bat baino gehiago aparkatu esleitu zaion garaje-plazan, eta ezin du bertan inolako objekturik utzi, altzariak, lanabesak, ordeko piezak eta osagai mekanikoak, olioak, hozgarriak eta abar barne.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Tener animales que puedan perjudicar la convivencia comunitaria y la conservación de la vivienda.</li><li>- Colocar antenas parabólicas o de cualquier otro receptor de señales de televisión y radio individuales en balcones, fachadas y tejados del edificio, salvo autorización por escrito del arrendador. Alokabide, S.A., se reserva la posibilidad de autorizar, si lo considera conveniente, la instalación de receptores de señales colectivas, estableciendo en su caso, las condiciones que le parezcan oportunas.</li><li>- Tender ropa u otros objetos en las ventanas y terrazas, tanto exteriores como interiores, ni en ninguna parte del edificio, salvo en los lugares especialmente dedicados al efecto.</li><li>- Instalar aire acondicionado sin el permiso por escrito el arrendador.</li><li>- Aparcar más de un vehículo en la plaza de garaje adjudicada así como dejar en la misma ninguna clase de objetos, incluidos muebles, enseres, repuestos y componentes mecánicos, aceites, refrigerantes, etc.</li></ul>
<p><b>HAMALAU GARRENA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOTIAK:</b></p> <p>Alderdietakoren batek ez baditu betetzen kontratuan adierazitako betebeharrak, bere betebeharrak bete dituen beste alderdiak eskubidea izango du betebeharrak hori bete dadin exijitzeko edo Kode Zibilaren 1124 artikuluan xedatutakoaren arabera kontratuaren suntsiarazpena eskatzeko.</p> <p><b>ALOKABIDE, S.A.k</b> kontratua suntsiarazi dezake honako arrazoi hauengatik:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Errentariari ordaintzea dagokion errenta edo bere gain hartu duen beste edozein kopuru ez ordaindu izana.</li><li>• Errentamendu-erregimenean duen beste edozein etxebizitzaren errenta-kontzeptuan zorrak daudela egiaztatzea, betiere kontratua jarduketan publiko bati lotuta badago.</li><li>• Fidantzaren zenbatekoa edo bere eguneratzea ez ordaintzea.</li><li>• Errentariak kontratu honen zortzigarren klausulan deskribatzen diren betebeharrak ez betetzea, partzialki bada ere.</li><li>• Kontratu honen hamargarren klausulan deskribatzen den dokumentazioa aurkezteko betebeharra ez betetzea.</li><li>• Etxebizitza kontratu honen hamabigarren klausulan adierazitako terminotan erabat edo partzialki lagatzea edo azpierretratzea.</li><li>• Kontratu honen hamairugarren klausulan ezarritako debekuak kontuan ez izatea.</li><li>• Errentariak bere gain hartutako beste edozein betebeharrak ez betetzea.</li><li>• Etxebizitza sozialaren errentamendua lortzeko ezarritako edozein baldintza ez betetzea, dagokion</li></ul>	<p><b>DECIMOCUARTA.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO:</b></p> <p>El incumplimiento por cualquiera de las partes de las obligaciones resultantes del contrato, dará derecho a la otra parte que hubiere cumplido las suyas a exigir el cumplimiento de la obligación o a promover la resolución del contrato de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 1124 del Código Civil.</p> <p><b>ALOKABIDE, S.A.</b> podrá resolver el contrato por las siguientes causas:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• La falta de abono de la renta o de cualquiera de las cantidades cuyo pago haya asumido o corresponda al Arrendatario.</li><li>• La constancia acreditada de la existencia de deudas en concepto de rentas por cualquier otra vivienda en régimen de arrendamiento, cuyo contrato tenga su origen en una actuación pública.</li><li>• La falta de pago de la fianza o de su actualización.</li><li>• El incumplimiento, siquiera parcial, de las obligaciones del arrendatario descritas en la Cláusula Octava precedente de este contrato.</li><li>• El incumplimiento de la obligación de aportar la documentación reseñada en la Cláusula Décima precedente de este contrato</li><li>• La cesión o subarriendo total o parcial de la vivienda en los términos reflejados en la Cláusula Duodécima precedente de este contrato.</li><li>• La inobservancia de las prohibiciones establecidas en la Cláusula Decimotercera precedente de este contrato</li><li>• El incumplimiento de cualquier otra obligación asumida por el arrendatario.</li><li>• El incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos para acceder al arrendamiento de la vivienda social que ocasionen la denegación del visado</li></ul>





<p>lurralde ordezkartzak kontratu honen ikus-onetsia ukatzea badakarte.</p> <p>Errentariak kontratua suntsiaraz dezake Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean ezarritako arrazoiengatik.</p>	<p>del presente contrato por la Delegación Territorial correspondiente.</p> <p>El arrendatario podrá resolver el contrato por las causas establecidas en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.</p>
<p><b>HAMABOSGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA:</b></p> <p>Alde errentariari berariaz jakinarazi zaio kontratu harremanak irauten duen bitartean ematen dizkigun datuak "ARRENDATARIOS" deitutako fitxategian sartuko direla, aurretik Datuen Babeserako Espainiako Agentziari helarazita -ALOKABIDE, S.A. horren arduradun da-, Alokabide S.A. eta errentariaren arteko kontratu harremana egoki mantendu, garatu, bete eta kontrolatzeko, baita ere, lauki hau <input type="checkbox"/> markatzen ez baduzu, ematen dizkizugun zerbitzuak hobetzera zuzendutako asebetetze inkestak egiteko eta posta bidez, mezularitza elektronikoko bidez edota komunikazio elektronikoko beste bideetatik Alokabide edota VISESAko produktu eta zerbitzuei dagokien informazioa eta beste informazio batzuk, informazio buletinak eta interesa izan dezaketen berriak bidaltzeko.</p> <p>Era berean, alde errentariari jakinarazten zaio bizikidetz-unitate honek alokairu erregimenean babes sozialeko etxebizitza lortzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazio ekonomikoa pilatzea azkartzeko eta errazteko helburuz eta ordaindu behar dugun alokairu hileroko errenta kalkulatzeko, ALOKABIDE, S.A.ri baimena ematen diogu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Ogasunetatik eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik, Foru Aldundietatik, Udaletatik eta Eusko Jaurlaritzatik adierazitako ondorioetarako beharrezkoa den dokumentazioa lortzeko, eta erakunde hauei eskatutako datu pertsonalak emateko baimena emanez.</p> <p>Era berean, alde errentariari jakinarazten diogu eskaria kudeatzeko eta indarrean dagoen araudia eta herri-administrazio ezberdinekin sinatutako hitzarmenak betez, euren datu pertsonalak etxebizitza gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzari, herri-administrazioei eta eskumena duten erakunde publiko zein pribatuei jakinaraziak izan daitezkeela, baina soilik helburu horretarako beharrezkoak diren datuak eta etxebizitza babestu bat eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko. Eskumena duten erakundeak, gutxienez, izango dira Eusko Jaurlaritza, eskumena duten Foru Aldundia eta Udala, Gizarte Zerbitzuak beharrezkoa izatekotan, edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia.</p> <p>Era berean, Alokabideren Gizarte Laguntza Unitateak bizikidetz-unitateari edo kideetako bati laguntzeko beste gizarte errekurtsuekin koordinatzeko beharra ikusi du batzuetan, hori guztia etxebizitzan sartzea eta bertan geratzea sustatzera eta erraztera bideratuta, eta kontratuaren betebeharrak betetzea lagunduz. Egoera hau ematen den kausetarako bakarrik, informatuak izan</p>	<p><b>DECIMOQUINTA.- PROTECCION DE DATOS DE CARACTER PERSONAL:</b></p> <p>Se informa expresamente a la parte arrendataria de que los datos personales que nos facilita durante la relación contractual, se incorporan al fichero denominado "ARRENDATARIOS", previamente notificado a la Agencia Española de Protección de Datos, del que es responsable ALOKABIDE, S.A., siendo utilizados para el adecuado mantenimiento, desarrollo, cumplimiento y control de la relación contractual entre ALOKABIDE, S.A. y el arrendatario, así como, salvo que marque esta casilla <input type="checkbox"/>, para la realización de encuestas de satisfacción destinadas a mejorar los servicios que le prestamos y enviarle por correo postal, por correo electrónico u otros medios de comunicación electrónica equivalentes información relativa a los productos y servicios de Alokabide y/o VISESA y otras informaciones, boletines informativos y noticias que pudieran resultar de interés.</p> <p>Asimismo se informa a la parte arrendataria de que, a fin de agilizar y facilitar la recopilación de la documentación e información económica necesaria para comprobar el cumplimiento de los requisitos de acceso a vivienda de protección social en régimen de alquiler de esta unidad convivencial y calcular el importe de la renta mensual de arrendamiento que le corresponde abonar, autoriza a ALOKABIDE, S.A. para que recabe de las Haciendas Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como del Instituto Nacional de la Seguridad Social, Tesorería General de Seguridad Social, Diputaciones Forales, Ayuntamientos y Gobierno Vasco la documentación necesaria a los efectos descritos autorizando por tanto a estas Instituciones a que faciliten a los datos personales solicitados.</p> <p>Del mismo modo, se informa a la parte arrendataria de que, en cumplimiento de la legislación vigente y de los Convenios suscritos con las diferentes Administraciones Públicas, sus datos personales podrán ser comunicados al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de vivienda, Administraciones Públicas, y a los organismos públicos y/o privados competentes, limitándose exclusivamente al tipo de datos que resulten necesarios para tal finalidad así como para verificar el cumplimiento de todas las condiciones y requisitos de acceso a vivienda protegida. Los Organismos competentes serán, al menos, Gobierno Vasco, Diputación Foral y Ayuntamiento competentes, Servicios Sociales, en caso de ser necesario, o Tesorería General de la Seguridad Social.</p> <p>Asimismo, hay situaciones en las que la Unidad de Acompañamiento Social de Alokabide detecta la necesidad de coordinarse con otros recursos sociales de apoyo a la unidad convivencial o a alguno de sus miembros, encaminado todo ello a promover y favorecer el acceso y permanencia en la vivienda y contribuyendo al</p>



garela aitortzen dugu eta gure datu pertsonalak udal, autonomiko, foru, osasun, hezkuntza eta antzeko gizarte zerbitzuei eta bizikidetzaren unitateari edota horren kideren bati paragrafo honetan deskribatutako laguntzak eman ahal dioten beste erakunde publiko eta pribatuek, elkarteek eta GKEek ematen dituzten zerbitzuei jakinarazteko baimena ematen dugu. Era berean, Alokabideri zerbitzu, erakunde eta elkarte horietatik horretarako beharrezkoak den guri buruzko informazioa eta datu pertsonalak jasotzeko baimena ematen diogu.

Alde errentariari jakinarazten zaio kontratu harremana egoki kudeatzeko bere identifikazio datu pertsonalak esleitu zaion etxebizitzaren arriskuak estali edo aseguratzeke poliza sinatzen duen aseguru-etxeei jakinarazteko erabili daitezke; konponketa eta erreforma enpresei (igeltseroak, iturginak, elektrizitatea, etab.) aurrekontu bat egiteko denean eta, hala badagokio, etxebizitza bizigarritasun baldintza egokietan mantentzeko egin beharreko konponketa, erreforma eta egokitze obrak; eta biziko den jabekideen komunitateari alokatutako etxebizitzaren kontsumoak kudeatzeko eta kontratu harremanak irauten duen bitartean sortu daitezkeen gorabehera posibleak kudeatu eta konpontzeko.

Bestalde, altak, bajak edo ur, gas eta elektrizitate horniketa kontratuen aldaketen kudeaketa errentariaren ardura dira. Dena den, jakinarazi zaio, askotan, konpainia hornitzaile batzuk kudeaketa hauek ALOKABIDE, S.A.tik egitea exijitzen dutela, eta kasu horietan zerbitzu hauek egoki eman ahal izateko eta sinatutako alokairua kontratutik sortutako betebeharrei arreta emateko, enpresa horiei beren datu pertsonalak erraztera behartuta egon gaitezke (behar-beharrezkoak direnak soilik, hala nola, izen-abizenak, NAN, helbidea eta, eskatutako izapideak eskatzen badu, kontu korrantea).

Enpresaren fitxategiek, lokalek eta tratamendurako sistemek teknikari eta antolamenduari lotutako segurtasun-neurri beharrezkoak dituzte, DBLOren 9. artikulua eta DBLOren VIII. tituluak eskatzen duten moduan, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatu, galdu eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzeko saihesteko.

Azkenik, alde errentariari jakinarazi zaio DBLOren datuak eskuratzeko, aldatzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko onartzen duen eskubidea erabili ahalko duzula jakinarazten dizugu, ondorio horietarako ALOKABIDE, S.A.ren helbidera -Gamarrako Atea, 1-A, 2. solairua, - 01013 Gasteiz (Araba)- bidalitako eskaera idatzi eta sinatuaren bidez edo [lopd-alokabide@alokabide.eus](mailto:lopd-alokabide@alokabide.eus) helbidera posta elektronikoki bat bidaliz, betiere NANaren fotokopiarekin batera. Datuak aldatzekotan, helbide berean jakinarazi beharko duzu eta, hala egin ezean, enpresak ez du erantzukizunik gain hartuko.

cumplimiento de las obligaciones del contrato. Únicamente para el supuesto en el que se produzca esta situación, declaramos haber sido informados y prestamos nuestro consentimiento para que nuestros datos personales, sean comunicados a los servicios sociales municipales, autonómicos, forales, sanitarios, educativos y similares así como los que se prestan por otras entidades públicas y privadas, asociaciones y ONGs que puedan prestar a la unidad convivencial o a alguno de sus miembros los apoyos descritos en este mismo párrafo, autorizando igualmente a Alokabide a que recabe de tales servicios, entidades y asociaciones la información y datos personales sobre nosotros que precise para ello.

Se informa a la parte arrendataria de que, para la adecuada gestión de la relación contractual, sus datos personales identificativos se podrán comunicar a la/s entidad/es aseguradora/s con las que se suscriba póliza para cubrir o asegurar los riesgos de la vivienda que se le ha adjudicado; a las empresas de reparaciones y reformas (albañilería, fontanería, electricidad, etc) que corresponda con la finalidad de que realicen un presupuesto y, en su caso, lleven a cabo, las obras de reparaciones, reforma y acondicionamiento que sea necesario acometer para la conservación de su vivienda en las debidas condiciones de habitabilidad; y a la Comunidad de propietarios o inquilinos en la que residirá para la gestión de los consumos de la vivienda arrendada así como para la gestión y resolución de las posibles incidencias que puedan surgir durante la relación contractual.

Por otro lado, la gestión de las altas, bajas o modificaciones de contratos de suministro de agua, gas y electricidad es responsabilidad de la parte arrendataria. No obstante, se le informa de que, en ocasiones, hay algunas compañías suministradoras que exigen que estas gestiones se realicen desde ALOKABIDE, S.A., en cuyo caso, para poderle prestar adecuadamente esos servicios que nos solicita así como atender las obligaciones derivadas del contrato de arrendamiento suscrito, nos veríamos obligados a facilitar a tales empresas sus datos personales (única y exclusivamente que resulten necesarios como nombre y apellidos, DNI, dirección y, si el trámite que nos solicita lo requiere, número de cuenta).

Los ficheros, locales y sistemas de tratamiento de la empresa cuentan con las medidas de seguridad necesarias de índole técnica y organizativa, conforme exige el artículo 9 LOPD y el Título VIII RLOPD para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.

Por último, se informa a la parte arrendataria de que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD mediante solicitud escrita y firmada en el domicilio a estos efectos de ALOKABIDE, S.A., en calle Portal de Gamarra, 1-A, 2ª Planta, - 01013 Vitoria (Álava), o enviando un correo electrónico a [lopd-alokabide@alokabide.eus](mailto:lopd-alokabide@alokabide.eus), acompañando en todo caso fotocopia de su DNI. En caso de modificación de sus datos deberá notificarlo en la misma dirección, declinando toda responsabilidad para la empresa en caso de no hacerlo.



**HAMASEIGARRENA.- EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO OROKORRARI BAIMENA EMATEA DATU PERTSONALAK SARTZEKO ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEI DATUAK ESKATZEKO, ETXEBIZITZA BABESTUA LORTZEKO BETEKIZUNAK EGIAZTATZEKO XEDEZ**

Honen bitartez, errentariak baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari etxebizitza babestuak eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzekeo beharrezkotzat jotzen diren datuak erakunde eskudunei eskatzeko. Erakunde eskudunak honako hauek izango dira, behinik behin: foru ogasunak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Estatistikako Institutu Nazionala eta jabetza erregistroak.

**HAMAZAZPIGARRENA.- ALOKABIDEREN ERALDAKATE BAT-EGITEA EDO ZATIKETA:** ALOKABIDEren eraldaketa, bat-egitea edo zatiketa ez da kontratu-harreman hau iraungitzeko arrazoia izango. Kasu horretan, eraldatutako sozietatea, bat egin duena, xurgatzailea edo zatiketaren onuraduna subrogatuko da.

**HAMAZORTZIGARRENA.- ERRENTAMENDU KONTRATUAN TXERTATU BEHARREKO NAHITAEZKO KLAUSULAK**

- Transakzioaren xede den etxebizitza ekainaren 18ko 3/2015 Legean eta hori garatzen duten gainerako xedapenetan ezarritako babes publikoko etxebizitzaren erregimenaren ondoriozko debekuei eta mugei lotuta dago, eta, horren ondorioz, erabilera-baldintzak behin betiko kalifikazioan adierazitakoak izango dira, eta errenta-prezioek ezin izango dituzte ezarritako mugak gainditu.

- Errentatzailea behartuta dago kontratuaren ale bat (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lurralde Ordezkaritzak behar bezala ikus-onetsia) errentariaren esku jartzera.

-Errentatzailea behartuta dago etxebizitzaren giltzak hiru hilabeteko gehieneko epean ematera, kontratuaren egunetik aurrera kontatzen hasita.

- Errentatzaileak konpromisoa hartu behar du etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko, eta bat hilabeteko epean okupatzeko, kontratuaren egunetik aurrera kontatzen hasita.

- Etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa ez erabiltzeak, normalean okupatu gabe edukitzeak edo bigarren bizileku izateko edo baimendu gabeko beste xede batzuetarako erabiltzeak egindako arau-hauste larri horri dagozkion diru-zigorak ezartzea eragingo du nahitaez.

**DECIMOSEXTA.- AUTORIZACIÓN A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL PAIS VASCO PARA INCLUIR Y SOLICITAR DATOS PERSONALES A OTRAS ENTIDADES A EFECTOS DE LA VERIFICACIÓN DE LOS REQUISITOS DE ACCESO A VIVIENDA PROTEGIDA**

El arrendatario, por medio de la presente autoriza al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para verificar el cumplimiento de todas las condiciones y requisitos de acceso a vivienda protegida. Los organismos competentes serán, al menos, las Haciendas Forales, la Tesorería General de la Seguridad Social, el Instituto Nacional de Estadística y los Registros de la Propiedad

**DECIMOSEPTIMA.-TRANSFORMACION, FUSIÓN O ESCISIÓN DE ALOKABIDE:** No será causa de extinción de esta relación contractual la transformación, fusión, escisión de ALOKABIDE, en cuyo lugar se subrogará la sociedad transformada, fusionada, absorbente o beneficiaria de la escisión.

**DECIMOCTAVA.- CLAUSULAS OBLIGATORIAS PARA INCLUIR EN EL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO**

-La vivienda objeto de transacción está sujeta a las prohibiciones y limitaciones derivadas del régimen de viviendas de protección pública de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, y demás disposiciones que la desarrollan y por consiguiente, las condiciones de utilización serán las señaladas en la calificación definitiva y los precios de renta no podrán exceder de los límites establecidos.

- El arrendador se obliga a poner a disposición del arrendatario un ejemplar del contrato, debidamente visado por la Delegación Territorial del Departamento de Empleo y Políticas Sociales.

- El arrendador se obliga a entregar las llaves de la vivienda en el plazo máximo de tres meses contados desde la fecha del contrato.

- El arrendatario se compromete a dedicar la vivienda a su domicilio habitual y permanente y ocuparla en el plazo de un mes contado desde la fecha del contrato.

- No dedicar la vivienda a domicilio habitual y permanente, manteniéndola habitualmente desocupada, o dedicarla a segunda residencia o a otros usos no autorizados, implicará necesariamente las sanciones pecuniarias que puedan corresponder a la infracción grave cometida.



**HEMERETZIGARRENA.-** Babes Ofizialeko Etxebizitzaren alorrean aplikatzekoa den indarreko legeriak arautzen du kontratu hau, eta legeria horretan ez dagoen guztian, indarrean dagoen Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko Legeak arautzen du.

**DECIMONOVENA.-** El presente contrato se rige por la vigente normativa aplicable en materia de vivienda de Protección Oficial y supletoriamente, y en todo lo no previsto por aquella, por la Ley de Arrendamientos Urbanos de 24 de noviembre de 1994, vigente.



ERANSKINA  
ANEXO

SUKALDEA	COCINA
<u>Altzariak:</u>  <u>Etxetresna elektrikoak:</u>	<u>Mobiliario:</u>  <u>Electrodomésticos:</u>
KOMUNAK	BAÑOS
GALDARA	CALDERA
BESTEAK	OTROS



Eta aurrekoarekiko adostasuna adierazteko, kontratu hau sinatu dute, hiru aletan eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.	Y en prueba de conformidad con lo que antecede, ambas partes firman el presente contrato por triplicado ejemplar y a un solo efecto en lugar y fecha señalados en el encabezamiento.
EL ARRENDADOR ERRENTATZAILEA  Sin.: .....	ERRENTARIA EL ARRENDATARIO  Fdo: .....